


BIZKAITARRAI
BIZKAIERAZ
24 n. ZENBAKIA
IRAILLA
— 1979 —

79R



GAZTELUGATXE

*Olako eginbearrak artzera,
oitu zaitte.
Urte bi igaro baiño len,
lau laguntza barri.*

Gauzetarako ikuspegi barria, artu-emonak izateko era barria eta geroak gaur eskatzen dauan laguntza-moltzo osotua-
goa eskintzea aitutzen dogunean, geuk daukaguzan
aurrerapen gurariai egitezko erantzuna emoteko baiet-
za agertzen gagoz.

Esaterako, dana gertu daukagu eperako dirua ezar-
teko libretak izan daitezaz.

Laguntza barria da ori eta laster emongo dogu-
zan laguntza askoren artean, lenengoa.

Gure laguntzak zabaltze ta aldatze au, Biz-
kai'ko Aurrezki-Kutxak guztiontzat etorki-
zun ederrago bat egitea gura dauala
adiazoteko bidea izango da.


Etorkizuna, geroa, gaur asi bear do-
gu.

Biar emen izango da.



**BIZKAI'KO
AURREZKI KUTXA**

Geroa, bertan daukagu.



BARRIRO LANERA

OPORRALDIA

Lanean gogotsu ekiten dauanak, oporraldiaren asieran eta azkenean igarten dau oporraldia bearrezkoa zala.

Gaur daukagun bizi-era artega onetan, ezin izango genduke luzaro jardun oporraldi barik.

Egualdi beroagoak, negu ta udako giro ezbardinak, inguruan izaten doguzan jaiak, ibillaldi luze edo laburrak, totd egokietan egotaldiak, izadi biziagaz artu-emon ugariagoak, gizonak egindako lan ederrak ikusteak... eta olako asko ta askok atsedena ta bakea demotsoe urduri bizi dan gizon artegatuari.

Eta nor ez da bizi gaur urduri ta artega?

*

LANALDIA

Baiña operraldia joan jaku eta indar barriaz gatoz orain lanaldi barrira. Len itzi doguzen lan-tresnak an dagoz, lengo lankideak ba-datorkez, lengo ibillaldi arduratsuan barriro sartzen gara.

Eta zer barririk?

Aspaldion Euzkadi'n beti daukaguz barriak, onak eta txarrak, baiña gogoratu dagiguzan euskereari buruzko barriak.

Burujabetza edo autonomi-aurrea dala ta, or diardue Erriari bere eskubide batzuk biurtzen, zori onez. Eta bakoitzean gitxi ba-dira be, arlo askotan.

Orren ondoren lez, or daukagu elebitasun-legea. Bear dan lez sartzen ba da, euskerearen alde egiteko oiñari on bat izango dogu lege au.

Or daukagu baita Buru-jabetzaren Araudia edo estatutoa. Orain ezin jakin noraiñoko indarra izango dauan gure Erri-arazoa bideratzeko. Egiluze'k zenbaki onetan diñoan lez, etorkizunari begira bizi bear.

*
*

EUSKERA DANEAN

Dana dala, Elebitasun-legea ta Araudia kontuan dirala, euskereak egunik baltzenak igaro ditu.

Orain, danean eta danera gure izkuntza au sartzea da gure lana.

Eskoletan lenengo.

Gurasoak arduratu eta alegindu euskereari indarra emoten eskola guztietan. Orretarako maixuak aukeratzean egin bearko da lan aundia. Gero irakasle onei euren eginbearra beteten lagundu.

Eskoletan txikitarik euskerea sartuko ba'genduke, urte gitxi barru gure Erri guztia euskaldun biurtuko genduke. Baiña, zori txarrez, erdera berba egiten dan errietan ez da oinkada ori emongo.

Irabazbideetan, lan-lekuetan, iragarkietan, urrutikuskiñean, irratian... bear-bearrekoa dogu euskerea sartzea. Baiña batez be, euskera jakitea geiago irabazteko bide izango ba'litz, askok ikasiko leuke izkuntza au. Erritar geienai ezin eskatu leikioe irabazi barik euskerea ikastea. Olakoxeak gara! Baiña irabazbide ba'litz, euskerea salbauko leiteke.

Eta, batez be, ikastoletan. Eskolak euskaldundu ezkeru ikastolak ez dirala bear diñoe batzuk. Nik baietz uste dot. Ikastoletan ardura bereziz artuko leukee euskal kulturearen eta euskerearen arazoa.

Goazen ba, lanaldi barrira, itxaropentsu ta pozik.

KO NDAIRA

SANTIMAMIÑE

Euskalerrian, zorionez, toki asko dagoz ikusgarriak. Eta, entzuten dogun lez, gero ta ikusle geiago urreratzen dira leku orreitar.

Askotan, gauza ikusgarri orreik zerikusi estua dabe gure lurraren kondairaz. Orduan, euskaldunak kulturadun erri bat izan gura ba'dogu, badakigu nora jo.

* * *

Nork ez dau entzun Santimamiñe? Kondaira-aurreko leku garrantzitsuen artean aurkitzen dira koba orreik, ikusgarriak benetan.

Ikusgarriak diralata, ni be joan nintzan orain egun gitxi ikustera.

Bost giñan: Leonekoak iru, U. S. A.-ko gazte bat eta ni.

Gure aurretik eta gure atzetik, beste talde asko; geienak kanpotarrak.

* *

Guri tokau jakun azaltzaillea, bizardun mutil gazte bat zan. Berari eskerrak, ango bazter guztiak ondo ikusi genduzan.

Gela batetik bestera ibiltzan, zulo batetik bestera igarotzean, gogoratzen nebazan gure arbasoak, antxiñako euskaldunak, kondairan eta kondaira-aurrean Santimamiñen bizi izan ziranak eta euskera utsean itzegiten ebenak.

Leon'ekoak eta U. S. A.'koak isil-isilik eta errespeto aundiagaz entzuten ba'dabe olango kondaira, zelan entzun bear ko dogu guk, arbaso arein seme-alabak garenok?

* *

Baiña orain, beste gauza bat esan bear dot.

Ikustaldia amaituta, bagoaz barriro kanporantz.

Atean, salgai, oroigarri batzuk. Euren artean liburutxo bat Santimamiñe'ko gauza guztiak arkitzen eta azaltzen dauzana.

Bi erosi doguz.

Eskuan artu ta bereala ikusi dot zerbaít tamalgarria benetan!

Liburutxo ori gastelaniaz, frantzesei, ingleseiz eta alemanez, idatzita dago baiña euskeraz ez!

Arriturik, itandu dausat saltzailleari :

—Zergaitik liburu onetan ez dago azalpenik euskeraz?

Aren erantzuna:

—Santimamiñeko arduradunak daki ori.

* * *

Orra or gauza tamalgarria.

Euskalerriko toki askotan ikusten dira idazkunak euskeraz kaleetan, atean, e. a.; iñoiz baiño ugariago argitaratzen dira liburuak euskeraz; iñoiz baiño geiago dira ikastoletara doazen gaztetxoak.

Olan izan arren, Santimamiñe'ko antxiñako euskaldunen kondaira ta bizimodua jakiteko, gaurko euskaldunak izkuntza arrotza erabilli bear dabe.

Ez ete-da ori ikaragarria?

Ez ete-da tamalgarria?

Zer esango dabe atzerritarrak?

Atzerrian ainbeste maite dan euskerarentzat, emen, bere etxean, lekurik ez!

* *

Gauza bat eskatuko neuke: Santimamiñe'n eta Euzkadi'ko ainbeste toki garrantzitsutan *euskalgira* sortzea, gure izkuntza agirian ipintzea.

Gure euskera ederrak merezi dau olango maitasuna.

Mundu guztiko jakitsuak goraltzan dabe ago batez gure antxiñako izkuntza.

Entzun zer diñan Marr jaunak, Tiflis (Georgia)'ko irakasle ospetsu onek: «Urre gorrizko dorre bat zutundu bear geunskio' e Euskalerriri ta bere izkuntzari, beti agirian eta bizi-bizirik egon daitezen».

Orra or atzerriko jakitsuak gure izkuntzarako agertzen daben maitasuna.

Eta genre maitasuna geurea dan izkuntzarako, nun dago?

OLABARRI'TAR MARKOS

Gaztedia-Itxaropen

Gure gaztedi bikain mardula
nite ikustean txaidean
itxaropena ezti ta pozez
nire biotzan erdian.

Urte luzetan negar ugari
egin dau gure erriak
azpiratuta, askatasunge
ilteko zorin guztiak.

Baña ixilpen euskal azia
zaindu da gordin mirariz
oin azalera urlen dau sendo
euskaltasunak gaur biziz.

Uclabarriak dirudi eder
biziz beterik erritan
euskaldun sena bonbon agiri
gure gazteen begitan.

Euskal gudarín odol zintzoak,
guraso zarren kemenak,
iraun egin dau gure artean
bear zan kimu lerdenak.

Ilda egola zarrak iltean
euskal endaren sustraiak?
Ez ez anaiak, ez olakorik
dira ba euskal gazteak.

Ikusi orain poz atsegiñez
gure gazteen arpegi.
Dana cia poza, dana bizia
dana garbi eta argi.

Ez da bildurrik, ez ta ezinik
gaztedi barri onetan
euskaldun enda gora biotzak,
aurrera gizaldietan.

ZAR-GAZTE

Laztandu nau, semia...!

**Kaletik etozala, ikus i dodaz:
ama, argal, ule-zuri, baltzez jantzita;
bere onduan alaba, ondiño gazte
ona, galanta, abuan irri-barria.**

**Barriz orduko aldiak gomutau dodaz:
alkar aurkitu ziñen iturrian
biok begiak barre, agin zuriak
maitasun izpi bixi biotzian.**

**Ene semia,
andikiren alabagan
ipinten bozuz zeure begiak,
zeure gaixua!...
Ba-datoz bere osabak bere billa
zugandik urrunduten, arin arinka.**

**Igaro dira egunak, igaro urtiak...
Urrun il da gaixua, atzerrian.
Enaz ni iñoz aiztu, bere irudia
bixi-bixirik daukat biotzian.**

**Agurtzeko une baten urreratu naz.
Ezagutu nau amak, abegi onaz.
Itz batzuk egin doguz eta alabeak
maitasunez laztandu, agurtzean.**

**Zeu gana barriz nator, seme gaixua,
ikusi dot barriro maitalea,
guztiz galanta ondiño
ezkongabea,
ta ziur nago:
mosu ori izan dala zeuretzat.**

UTARSUS



Ume Jaio Barria

*Zoragarria zara
time bigun ona
ezpan gorrietarik
dozu negar leuna.*

*Atz txikiak dituen
eskuixo zuriak
ara ta ona beti
gelditu eziñak.*

*Begilxu sort barriak
zabal-zabal dozuz
argiz bete beterik
zeruko zizpuruz.*

*Zuri begira nago
aundi nik gogamen
zer izango eta zeren
gure artean emen.*

*Begi garbi argiak
loituko ete dira?
beti zuri garbiak
izango ale dira?*

*Ezpan lore gorriak
aundi egitean
izango itz garbidun
gizaki artean?*

*Oinlxu indar bageak
gogor daizanean
ibilko ete dira
bide zutenean?*

*Txikia izan arren
mundu oro zara,
zure barren dozula
elorkizun gala.*

*Gizadi ondu dedin
guzliok zugana
etorri bear dogu
eskainiz Ian dana.*

*A gintari elizak
irakasle to abar
zu or izatearren
Ian dana ez da bar.*

*Zelako ingurua
alako umea
inguru zintzo garbik
edertzen lorea.*

*Ekin ta ekin daigun
egiz ba alegin
gure umelxo onek
inguru on dagin.*

GALLASTEGI'TAR KAULDI'K

UMEEN URTEA

BEGIRUNEA

Gizon ospetsuak, aurtengo urte au umearen urte izan dedilla erabagi dabe.

Umearen eskubideak aztertu ta lortzen aleginduteko urtea.

Umeak, gizakia danez, eskubide asko ta aundiak ditu: jaioteko, biziteko, eziketa onerako, siñis-
teko eta abar. Eskubide orrei benetako begirunea izan bear dautsegu.

* * *

ERRUDUN GARA

Gaur, geure aldetik, bakoitzak benetako azterketa bat egin bearrean gagoz.

Itaun bat zintzo-zintzo: Nik umearen eskubidearen aurka ez etc dot ezer egin?

Nire ustez, geitxoago edo gitxitxoago danok umearen eskubideen aurka zerbait egin dogulakoan
nago.

Errudun gara, bai.

* * *

IKUSI TA ENTZUN

Mundu onetara utsik dator umea. Jaiotean, bere buruan eta biotzean ez da sartu, ez irudi bat,
ez ta itz bat bera be.

Idatzi barik dagoan orri zuri garbiaren antzerakoa da umearen barrua jaio barritan.

Utsik dago.

Egunetik egunera umearen inguruak orri zuri ori idatzi ta beteko dau: ikusten dabenagaz eta
entzuten dabenagaz betetuko da umearen barrua.

* * *

ONA ZEIN TXARRA

Ori, nai ta ez, orrela izango da. Gauza onak ikusi ta entzuten ba'ditu, gauza onakaz beteko da
umea: gauza txarrak ikusi ta entzuten ba'ditu? Gauza txarrakaz beteko cia utsik egoan gure umetxoa.

Bear bearrekoena umeari inguru ona sortzea da.

Zalantza barik, inguru onak egingo ditu ume onak.

Inguru txarra sortzen ba'dogu umeak bizi bear dauan gizadian, danon onerako izan bear litza-
teken gizon barria, txarrera biurtzeko bidean ipiñiko dogu. Ori ez da umearen eskubideen begirunea
aukitea.

Ori indarkeri bat da, ta txarrena, gero.

* * *

GURE MUNDUA

Len, gure erri maite onetan, oitura onakaz, Jainko zaletasunagaz eta zintzotasunagaz bere biziko
inguru ona egoan, baiña orain, bestelako oitura, edozelako irakatsiakaz, dana lorrindu ta zikinduta
dago gure ingurua.

Zoro-etxe bat dirudi gure munduak.

Ilte, lapurreta, lizukeri ta moralbagetasunagaz mundu bidebako bat sortu dogu.

Askatasunaren izenean, geiegikeri ta nabarmenkeria nagusitu dira gure artean, eta bide orretatik,
baietz esan arren, ez dago begirunerik umeen eskubideentzat.

*

Baleiteke zuk au erantzutea: Nik umeak ekarri ditut, jantzi dituk, janaritu be bai ta eziketa ona
emoten aleginduten naz. Uste dot umearen eskubide benetakoak babestuten dodazala.

Ori ederto dago, baña zure bizikereagaz inguru au lorrinduten ez ete dozu askotan lagundu?

* * *

UMEEN URTEA BETI

Umearen urtea bed da.

Ez urte onetan bakarrik, egunero ta urtero, guraso zentzudunok eta siñistedun guztiok, geure
sendietan, legeetan, ikastoletan eta alde guztietan inguru au garbitu ta gure umeak errez errez asikera
ona izan eta euren eskubideak zaindu ta lortzeko altasuna izan dagien, alegindu bear dogu.

Ori da gizadiaren etorkizuna.

Ori, munduaren itxaropena.

Benetako eskubideen iturri, solo ta landarategia.

Umearen urtea beti da, egunero ume barriak etorriko diralako.

Egin geinken lanik ederrena ta onuratsuena, umeak zaindu ta gizakume ta Jainko semeak dira-
nez, eurentzako begirapen ta laguntza eukitea da.

GALLASTEGI'TAR KAULDI'K

ARALAR'ERA ERROMES

ERRIA EZAGUTZEN

Udako egun argi zoragarri baten, Bilboko San Anton parrokiko **aldra** aundi batek, ibillaldi **gozatsu** bat egin genduan Euskalerriko biotza dan Aralar mendira.

Erromes orren antolatzaileen erabagia, batez bere, au zan: **Bilbo'tar** erri zeeko andra-**gizonai** egun eder bat igaro erazo ta eusko lurra obeto ezagutu **eguela**.

Izan bere lots agarria da euskaldun geienak, eskolan ortik **zearko** edesti ta **lutelestia** ikasiaz, euskal erriko edesti ta lutelesti-geografian antzu egotea, edo ta gutxi-gutxi ikastea.

ELORRIO'N

Bilbo'tik urten eta gure bidean egozanen edestia azalduaz, eldu gintzazan Elorriora.

Emen geldi-une bat. Bertako eliz **miragarritz** barrantzuta dagoana **ikustaldu**, **Berriootxo** zorundunaren obi-aurrean otoi bero bat egin, erri ortako **jaur-regi** ta inguru atsegingarria ikusi ta **gosaldu** genduan.

Ondoren, or goaz **Elgeta'runtz** gora. Aldapa goi-goitik begira, gure begiak arrituta egozan: **Udala**, **Anboto**, **Urkiola** aldeko aitzak, **Elorrio**, **Atxondo**, **Abadiño**, **Durango** ta beste mendi, baserri ta lautada **ikusgarriak** ikustean.

ELGETA'N ETA BERGARA'N

Gero, arrano baten antzera Elorrio ta **Bergara'ra** begira dagoan **Elgetako** erria agurtu genduan.

Bergara'n gure gomutea, **San Martin**, **San Pedro** ta **Santa Marina** eleiz ederrak jakituri-iturri zan **seminarioa**, ta erri ortan egin zan **besarkada galgariarentzat** gogoratzekeo izan zan.

ZUMARRAGA'RA TA ORDIZIA'RA

Andik **Anzuola'tik** goruntz, eldu gintzazan **Urretxu** ta **Zumarragara**.

Emen, bearrezkoa zan lez, **Legazpi** ta **Iparragirre** ren edestia **gogoratuaz** eta onen abesti **samurrak** abestuz eldu gñan, **goierritik** zear, **Ordiziara**.

Zer esanik be ez, erri onetan azaldu zan, **Pilipiñe** tako **ebangelitzaillea** izan zan, **Aita Urdaneta** aundia.

TOLOSA'TIK LEKUNBERRI'RA

Gero, Gipuzkoako biotz izan zan **Tolosa'ko** erri aundi ta ederra alde batera **itxirik**, **Araxes**, **Armenia'ko** **Araxes** erreka izena berbera dauan ibai ondotik gora **Betelu**, **ango** ur osasuntsuen **goralpenak** egiñez, ta beste **errizka** batzuk **igaroaz**, or nun elduten garean **Lekunberri** erri **politera**, **udati** askoren. atsedean leku dan errira.

NAPARROA'N EUSKERAZ

Or euskerea entzutean, **Bilbotar** batzuk arrituta egozan esanaz: zelan emen euskeraz egiten da?

Au ez al da **Naparroa**?

—Bai, baiña **Naparroa** Euskalerrri da.

—Guk ortik zear askotan irakurri dogu **Nafaroa** ez dala euskalerrri.

—Ori euskaldun txar batzuk esaten dabe, baiña

Naparroa **Euzkadiko** atalik berezieta da, izan zan nire erantzuna.

IKUSKIZUN EDERRA

Lekunberri'tik **16 kilometroko** bidean ikusi genduan amaibako **arezti** ta **pagadi** zoragarri ta **lerdenak**, eta, azkenez, eldu gintzazan Aralar mendi tontorrera.

Eguzki **argitsuagaz** a bai zala **ikuskitun** atsegingarria!

Auñamendi, Aitz-gorri ta lau euskal **atalen** mendi, zelai, baso, oian, erri ta baserri, **Gorbea** ta beste inguru eder **guztia** geure begien aurrean egozan!

MENDI SANTUAN

Aralar da gure mendi santua bertan antxiña antxiñako eleiz bikaña.

Bertan izan genduan meza ta itzaldi bero-beroa.

Gero bazkari ederra. Azkenez **triki-trikiagaz** dantzta ta jolas **alaiak**.

GASTEIZ'TIK BILBO'RA

Gero, Araba'ko uri nagusi **Gasteiz'era**.

Ango edertasuna-k ikusi, bero ikaragarria egiten ebalako geure **eztarriak** edantegietan otx-arazi ta guztiok poz ta **abestiz** **Bilbora**, illun nabarrean.

EGUN EDERRA

Danak **iñoen**: Bai egun ederra **gaurkoa**!

Euzkadi'ko lau atalak agurtu doguz, **biriak** aize garbiz bete doguz; **biotzat** **Jainko**-**zaletazunagaz** in-dartu doguz, burua **jakingarri** askogaz ugaritu dogu.

Bai polita **Euskalerrria**!

Ostera be sarri-sarritan olako **ibillaldiak** egiteak merezi dau, **Bilboko** ke ta **autsartetik** urten eta euskal **sakontasunez** beterik, benetako euskaldun fededun biurtu gaitez!

ARALAR'ERA, ERROMES

Arnas-loki, otoi-leku
goi-goian Aralar mendi,
or dogula eleiz bikain
Mikel Deuna dala ik urrin.

Zerbait dogu barru-barrun,
gora, gora, diñoskun
deadar orrek bullz aluz
emen gaur gore eguna

Aralar mendi onelan
aseluz gore barrua
egun zori bardin eza
emen bai dala zerua!

Aralar-ko arkaitz onek
ba-dau bere barru-barrun
euskal errik bear dauen
alseden gozo ta zorun.

Tontor ontatik begira:
inguru guzti guztira
Aui amendi, Aitz-gorri la
Gorbea aundi, or dira.

Naparroa ela Araba
Bizkaia ta Gipuzkoa
Ama Euskalerrin alabak
gurelza zorabioa.

Ikuskizun bardin Gaga
emendik ikusten dana,
euskal biotz guzti guztik
emen dabe atsedena.

Arrizko oñiarriagaz
egiñik dagojarleku
bertan jarririk. dogula
Mikel .Deuna, goi aingeru.

Berberak askatu eban
Teodosi euskalduna
berak eskatzen dauala
gure obenen lurrina.

Bera zaindari dogula
iñoiz bere ez bildurrik
Euskalerriko semelan,
gagoz betiko zaindurik

Euskalerriko ekaitz elan
itxaropenez beterik
euskal begiak zaganunlz
Mikel Deuna, alkarlurik.

Egun ontan gose otoi
bero, garlsu eta gori
beGi-beti Zure oloiaz
zaindu Mikel, euskalerrri.

AMESLARI'K

JAKINTZA

AMAZONAS IBAIA

SORPENA TA AZKENA

Peru'ko Huagra meridian dau bere sortze eskutua. Amazonas ibaia.

Dezimetro bat dauan ur-txirrista batetik urtenikoa. Benetan arrigarria munduko ibairik aundiena izatera elduko dan ibai onen itur-buru txiki ta isil ori.

6.000 km'tik gorako ibillaldi aldarrai baten ondoren, Brasil'go Marajo ugartearen egundoko azken aundi-eder bat damosku.

Itxas-agoaren zabalerea 325 km'koa da eta itxasoan sartzen diran bere ur gazak km askotan, indarraren indar biziz, itxas-ur gaziak gaindurik, errege bakar lez, here aunditasuna ta nagusitza itxas-lur ingurumarietan agertzen dauz.

Aitaturiko Marajo ugartea, bere 42.000 km.2'z, Suiza-aiñakoa da. Ori ta be biztanle gitxi ditu, 80.000 inguru.

ABIADENA TA IZENAK

Lenengo 975 km'tan, Atalaya errira arte, jatsi egiten-da, itxas-goitik artutako neurri-maileak ia 5.000 neurkin edo metroko berakada izugarria egiñaz.

Bertako inditarrak soil-sollik, almadien bitartez, ausarzen dira abiada ontan esku artzen.

Andik aurrera, Atalaya'tik Atlant-itxaso aundira, Amazonas ibaia geroago ta zabal eta sakonago biurtzen da, lautada parebako baten, eta guztiz sei laterritik zear ibilli dabillega, bere izena bost aldiz aldatzen dau: Apurimak, Ene, Tambo, Ukayali ta Amazonas, tokian tokiko izena inditar bizi-lagunak emoten dautsoela.

IBAIEN ARTEAN

Beste ibai bidoguz lurbira osoan Amazonas ibaiaz, urri-tik ba'da be, bardindu leikezenak.

Ipar-Ameriketako Missisipi ibai ospetsua bata, Egiptoaren Nilo ibai itzalgarria bestea.

Missisipi ibaiak, berak daroan ur joritasuna kontuan artzekotan, 11 bidar gitxiago ur daroa, ur ori Amazonas ibaiak daroana- idekotuten ba'dogu, naiz litroz naiz kopurua.

Nilo ibaia, askoren eritxiz ludiko luzeena, Amazonas baiño 80 km. laburragoa da. Orretarako Parana Ibaitek Amazonas ibaira jo bear dogu, geienbaten itxas-ontziak jonten daben lez. Bestela ez.



Union. Ckoco'n inditarraklikertzen (Da'ion, Panaxi)

JAKINGARRIAK


Amazonas ibaiak itxas-agoan egunero botaten dauan ur-moltzoa New York uri nabarmenak 9 urterako naikoa izango leuke.

1.100 erreka txiki ta aundi beraganatzen ditu. 10 dira Rhin baino luzeagoak.

Inguru-ninguru, ibai ta guzti kontuan artuta, 80.500 km.'tan itxas-ontzi ta bestelango urontzi txikiagoak bere uretatik zear ibilli daitekez. Sarritan itxasontzirik aundienetarikoa 3.700 km. ibai-gora dabilte eta ontzipean, killapean, 10 oin-bizitzako etxea sartzeko beste leku izaten da.

Amazonas'elc, bere inguruko ibaiak tarteko dirala, 6 milloki km. laukituko lurak bustiten ditu.

Zugatzez beteriko lurralde au ludiko oianik aundiena da.



Darien' go inditarrakaz Tuira ibaian bera.

BASA TA UR-PIZTIAK

Anakonda izeneko boa-suge ikaragarriak, 12 m. luze ta 225 kg. ditu eta olako asko aurkitzen dira ibai-ondoko basalokatzetan. Suge oneik astean edo arnabostcan bein baiño ez dira janaritzen.

Zenbatu eziñeko beste arrain-mota dagoz bertan: 2.000' tik gora ei dira. Euretariako batzuk oraindiño jakituri-maillan sailkatu bakoak.

Iquitos erritik ludi guztiko akuario edo arrain-ontzietara, bero-aldeko arrain margodunak, millaka ta millaka bialtzen dabez.

Erri orretatik tximi^ooak, katamixarrak, jaguarrak, indiurde edo tapirrak, suge ta egaztiak, Europa'runtz eta Iparralde'runtz bialtzen dira. Euren ostera batez be Miami aldera ntz eta egazkiñetan egiten dabe.

Ain ezagunak diran piraiñak, arrain txiki ase-eziñak be, an daukez euren bizi-lekuak. Millaka dabilte gora ta bera uretan zear, eta ibaira jausten dan abere gaixoa minutu baten ezerezen dabe.

Muskertzaz, kaietan galantak eta ibai-musker edo kodrillo ezain-itsusiak be eundaka ikusi geinkez ibai-ertzetan, eta lurraldean azpil eta erratillu lakoak divan mitxel-tak, jakitunen izenez «Marpho didius» diranak be an or emen ikusten dira.

Miarmiakaz eta olako beste kakalardoakaz be jarraibidea izango neuke, baina ez noa geiago luzatzen. Euren bestekoak ludi guztiak ez dirala aurkitzen, jakitunen eritxiz, esan ezkerro naikoa dala deritxat.

INDITARRAK

Mixiolariak diñoskucnez, gaur egun 212 leiñu (tribu) ezbarðiñak bizi dira angoo oianetan.

Euretariako askok oraindiño ez dabe ikusi ez mixiolaririk ez ezelako gizon zuririk.

Kondaira aurreko legez bizi dira: euren gezi, oitura zar, azti, sorgin eta guzti.

Beste batzuk aurreratuagoak dira eta merkatari ta gizon zuriakaz artu-emonetan diardue.

Oian aundi oneik, astiro-astiro, gitxituez doaz, erri-lantzearen indarrez.

Noraiño da ori gauza egokia?

Ekolojistak erantzun bearko dabe or. Geuk be lagundu dagiegun mundu obea egiteko. **ARREGI'tar Josu'k**

AITA ARRUPE

HIROSIMA'N IZANA

Arrupe aita, Bilbotarra, BizkaiTarra, Euskotarra, eta aurki euskalduna da.

Japon'en egon zan Hirosima'ko uria atomik-dunbadeak ezereztu ebanean. Antxe emon eutsen osagille ta abade-laguntza bizirik geratu ziranei.

Orain, Erroma'n Josulagunen Nagusi dala, joan dan epaillean, izparlari-taldeagaz alkar-izketak izan ditu Jesus'en Lagundiari buruz.

TXINA'N JAZOAK

Jesuitak, diño, pozik Ian egingo dabe Txina'n, lau gizaldietan zear egin daben lez.

Jesusen Lagundikoak Xabier'eko Pranzisko deunagaz sartu ziran Txina'n. 1949'an Txina'tik atera zituenean, milla jesuitak amar mixio eukezan eta eurak zuzendari zirala iru Ikastetxe Nagusi.

150 ziran jesuita txinatarrak.

Gaur 121 ei dira, soloetan lanean eta zigorrak beteten dagozenak.

Txina guztian ez dago eleiza bat baiño eta bera Pekin'en diplomatiku ta erriarteko ordezkariarentzat.



Aita Arrupe Pironio kardenalagaz Mexico'ko Pueblan'n.

VIETNAN'EN ETA CUBA'N

Aita Arrupe'k Vietnan'go jesuitai buruz be egin eban berba.

Andik be atera egin ebezan, baiña bertako 38 geratu ziran an. Orain arte ez dakigu euren barririk.

Sei ii dabez, bat galdu egin da edo ez da agiri, eta beste bat erbesteratu egin dabe.

Cuba'n, 30, adiñez zarrak dagoz. Fidel Castro dagonetik, ez da ara iñor sartu. Lana lar mugatuta dauke. Cuba'n gauza baiezkorrek be ba-dira, zalantza barik, baiña ordaindu bear dan salneurria, askatasunik-eza da.

MARXISMOA TA JESUITAK

Jesuita marxismo-zale batzui dagokienez, aita Arrupe'k au iñoan:

«Urrindu barik, marxista-taldeakaz alkar-izketa ta eretxizko laguntzaren bat jesuita batzuk ba-dabez, baiña arein ideolojiaren aldezko autorpenak eta agiriak ezin geinkez onartu.

Ez dogu esan gura marxismoaren ardurarik ez dogula izan bear, beraren giroko eguratsean bizi gara ta. Sakon ezagutu ta ikasi bear dogu, Jesukristo salbatzailearen eta marxismoak langilleen artean sortzen dauan gorrotoa alkartu-eziñak dirala, argiro ikusteko.

Marxisten gogorapen asko okerrak eta kaltegarriak dira, baiña sarritan oiñarriko zentzun sakonetik datoz eta zuzengabekeri sakon ori, kristiñauen ikuspegiz, baztertu bearrekoa da.

Ez dogu jausi bear manikeo-gisako biñako gizartearen atalkietara eta ez doguz nastau bear Kristo'k eka-rritako salbapena, eskatolojiko edo azkenekoa, ta emengo gizarte utsezkoa.

Gizabidez eta egokiro ekitea oba da, gogorkeri-bidetan ekitea baiño.

Ori adierazteko marxismoa sakonez eta jakintsuki ezagutu bear da eta ez zirri-marraz».

ASKATASUN-TEOLOJIA

Askatasun-Teoloji az be aita Arrupe'k egin eban azalpena: «Ez dogu artu bear Ibero-Ameriketako zerbait ba'litz lez, lur zabalean edonongoa dan lez baiño.

Balioko dan Askatasun-Teolojiaren ondoan, ba-dira beste batzuk estuak eta bide galdukoak. Teologu bidegalduen izenak emon baiño oba da Askatasun-Teoloji bidegalduren motak agertzea, jarraitzen dautsoenak Eleizearen irakaskintza ta kristiñau-ikaste zuzena galdu dabez eta».

Jesuitai buruz auxe esan eban: «Ez gara gure arerioak diñoen bestean okerrak, ez eta gure lagunak esaten daben bestean onak».

ESANEKOTASUNA

«Gure laugarren ziña, esanekotasuna da, Aita Santuaganako esangintza.

Jesuitak Aita Santuak emon gura dautsen edozein mixio-zeregin, baldintza barik, ontzat artu bear dabe, eta Paul seigarrenak iñoan lez, tokirik gatxenetan, ideolojien bide-kurutzetan, gizartearen lubakietan, gizonen premiñetan eta kristiñauen aurrez-aurrezko eritxien aurrean, an agertuko dira josulagunak.

Azken-aldietan Lagundi au aldatu egin dala ta, batzuk biotz-ikarea izango dabe, baiña alan izan bear zan, Eleizea be, aldatu egin da-ta. Ez dot esan gura aldaketa guztiak bide zuzenezkoak izan dirala, bide zuzena aurkitu arte lur asko zapaldu bear izaten da».

JAUNTXUKERIA IL DA

«Dirudun jauntxu aberatzakaz Ian egiten eban josu-lagundia amaitu ta aienatu da«—'diño Aita Arrupe'k'-«baiña Lagundiak diru-laguntza bear dau, txiroen artean bere lana egokiro egiteko.


Len emen bigarren irakaskintzan 20.000 ikasle eukazan. Orain, onein gaiñera, bere ogibideko eskoletan 50.000 dagoz.

Lagunditik lekaide asko urteten ziran, gitxi-gora-bera urtean 2.000, eta orain 130. Egoera au aztertzen da irudun Aita Santuak, eta ba-leiteke araudi barri egokiago bat Eleiza guztirako berak argitaratzea».

LETONA'k

ALONSOTEGI'KO "GURE

I IKASTOLA



Alonsotegi'ko «gure izkuntza» ikastolea.

Zoritxarrez orain urte batzuk dala, euskerea ze-ro * galdu zan Bizkai'ko zati aundi ta eder batean, Enkarterrietan ain zuzen be, baiña sarritan jazoten dan lez, zugatz bat moztu * ondoren, kimu barri batzuk jaiotzen dira indar aundiaz. Eta auxe da Enkarterrietan orain gertatzen *dana, len bertako izkuntza zana ixildu ondoren berpiztuteko * ordua eldu jako, au egia dala ondorengo alkarrizketan garbi ikusiko dogu.

Orain urtebete dala Alonsotegi'n «Gure izkuntza» ikastola sortu zan, gaur bertako arduraduna dan Bilbao'tar Marian neska jatorragaz irakurriko dozuen urrengo alkarrizketa laburra egin dogu.

—«Gure Izkuntza» ikastola zer da? Umeentzako ikastola bat ala gau-ikastola bat?

Egunez 28 ume doguz, urte bitatik lau urtetara ta gabaz 200 bat ikasle dagoz, umeak eta jende nagusia.

—Zelan sortu zan «Gure Izkuntza»?

—Jende askok ikasteko gogo aundia eban eta gure ustez bearrezkoa zan zerbait egitea, au dala ta jaiio zan ikastola au.

—Ba dozue laguntzarik?

Ez, tamalgarria * da au esatea, baiña orain arte oztopoak * baño ez doguz izan lortu dogun dirua gure lanagaz izan da, kupoiak salduz eta abar.

—Une onetan geien bear dozuena zer da?

Zer esango dautzut ba! Gauza asko, irakasleak, dirua, mai batzuk txikitxuentzat eta abar eta abar.

Enkarterrietan zaletasun aundia dago euskeraz ikasteko, ezta?

—Bai, gaiñera zuen irakurleentzat pozgarria izango dan gauzatxo bat esan bear dautzut: Jende askok bizkaieraz ikasten diarduala.

--1979-80 ikastarorako asmo barririk bai?

Eskola-aurrekoa * gertatzeko asmoa izan dogu baiña arlo * onetan jendeak ez dau ondo erantzun. Gabeko klaseakaz aurtan be jarraituko dogu.

—Beste zeozer amaitzeko Marian?

Bakar bakarrik laguntasuna bear dogula, ta gure aldetik orain arte bezela jarraituko dogula, euskeraren alde alegin guztiak egiten.

Milla esker Marian eta ba'dakizue zuk eta Enkarterriko guztiak ZER onetan zuen adizkide bat dozuela. Gura dozuenean etorri gugana, bitartean, jarraitu gogor eta zuei edo Bizkaiko euskereari oztopoak jartzen dabezanei jaramonik ez, aurrera! Lan egiñaz ! Ia emendik urte batzu tara Enkarterri guztietan euskeraz egiten dan.

IBARRA'tar BERNARDO

Izki - Nastea

		K	S	O	J	I		T	S	Z
	O	I				M				A
GI						R	S			J
		L			R	A			S	A
			L	A		NA	I	R	L	TZ
Z	I		O	J		O				E
	IV		R		O	J	T	L	A	L
		I				A	Z	B		D
P						L		P		U
						L				N
		T			R	E		R	T	Z
										E

Izki-naste onetan, Gipuzkoako host ibairen izenak dagoz. Aurkitzen ezpadozuz ikus azkenengo orrialdean.

Iudako Ikastaroa Euskerazaleak"en

Dakizuen lez joan dan garagarillan Euskerazaleak Alkartean, * udako ikastaro bat eratu * genduan. Ona emen ikastaro onen zertzelada * batzuk;

Klaseak illaren 2'an asi ziran eta 30'ean amaitu. Ira mailla izan genduan. Mailla bakoitzak klase bi euki ebazan, lenengo txanda arratsaldeko bostetatik zazpirak arte ta bigarrena zazpiretatik bederatzietara.

* * *

Bost irakasle barri izan ditugu ta etorri diran ikasleak (64 ain zuzen be) batzuk gure Alkartean egonda-koak izan dira, beste batzuk Xabier Pe'r,a'ren ikastolatik eta Montiano'ren Akademiatik etorri jakuz, baiña baita Deusto'ko Izkuntz-Eskolatik, Sestao'tik, Alonso-tegi, Portugalete, Erandio, Zornotza ta Durango'tik ere etorri dira beste ikasle batzuk.

* * *

Azteapen onetan beste zazpi itaun egon dira ikastaroaren alde onak eta txarrak aitatzeko ta ikasleen asmo barriak jakiteko.

Y ik uste dot aurtengo ikastaroa saio bat izan dala datorren urteetarako.

Ia ba emendik aurrera danon artean, irakasle ta ikasleen artean, obeto ta Ian gaigago egiten dogun.

Ikastarora etorri zarien guztioi eskerrik asko.

ITARBE

IZTEGIA

Zearo	completamente
moztu	mutilar, polar
kirru	brote
gertatu, jazo	suced.er
berpiztu	revivir
arduradun	responsable.
tamalgarri	lamentable
oztopo	impedimento
eskola-au rreko	preescolar
arlot	asunto, cuestion
alkarte	asociacion
eratu	organizar
zertzelada	dato, pormcnor
...ri buruz	hablar sobre...
itzaldi	conferencia, charla
garrantzitsu	importante

Irakasleen ustez jandeak polito egin dau lana eta gaiñera pozik urten dabe ikastarotik.

Azkenengo egunetan alfabet izaziñoari buruz * itzaldi di * bat emon euskun Retolaza'tar Jose Antonio'k oso itzaldi garrantzitsua).

Gore aldetik azterpen edo «encuesta» bat egin genduan. Azterpen oneri 33'k erantzun eutsoen. Ona emen «encuesta» onen itaun batzuei emondako erantzunak;

Ikastaroa zelakoa izan dan itaunari
24'k ikastaroa oso ona izan dala erantzun dautsoe.
7'k ona izan dala.
2'k Alan olangoa.

Irakasleak (anderei oak) zelan azaldu dabez ikas itaunari.
26'k guztiz ondo erantzun dabe.
6'k ondo.
1'ek ez dan erantzun.

Euskal Ikastaro Luzeak

URRILLEAN

EUSKERAZALEAK TALDEAREN OELETAN

EUSKERIA IKASTEKO KLASEAK ASIKO DIRA.

ETORRI GURA DOZUENAK

IRAILLAREN AZKENENGO ASTEAN

EMON IZENAK

ATOR GUGANA!

GORBEIA, MENDI ZANGAR

BIZKAIA'RI KANTA

Gau ta egun kanta bear genduke geurea dana.

Eskuldunok ba-doguz gai bikaiñak kantari jarduteko.

Eta naiz bertsolari naiz idazle ainbat gauza abesturik be, gai onen biran ibilli oi dira geienik: Jainkoa, izadia ta giza-barrena.

Inguruan dogun munduari «izadia» deritxagu.

Errekak, zugatzak, txoriak, ibarrrak, mendiak ditugu inguruka.

Euskal lurreen Naparroa'k ba-ditu mendi-kate ederrak, baita Araba'k eta Gipuzkoa'k be.

Baiña, niretzat beñik-bein, Bizkaia dogu mendi aundi zoragarrietan nagusiena.

Zoaz Gorbei gaiñera, ta esaidazu egia difiotzudan ala ez.

Neurri danetako troka, zelai, aldatz, zugazti La amildegi izugarri, ikuspegi lillurakor... zer ez dau berak?

GORBEIAN MEZEA

Atsegin jat niri Gorbeia'ra igotea. Urte mordo dala, gazte batzuk etorri jatazan, bilbotarrak, an Igeriñao'n, aterpe eder bat eukenak, mesede eske.

Zer gura eben?

Eurak, Juventus'koak, askotxo ziran, euren aterpea —gaur etxe ederra— atonduten, ebiltzan, zapataz ta igande-goizez lan egiñik.

Eta goizeko amabiak inguruan, antxe bertan, Edurretako Amaren baselizan mezea nai eben, maiatzetik u rrillerarte.

Baietz esan neutsen.

Eta ara joaten asi giñan, Larra'tik, igande ta jaietan.

1952 zan.

Neuk itz-emon neutsen lez, neu joan nintzan geienetan.

Eurak laguntzen ninduen Lemona'tik, Zeanuri, Zanutzu, Lekanda azpitik, Arraba'ko landatik zear, Igeriñao'ra.

Ia beti San Justo'tik igoten genduan. Arrezkero, nik uste, 75 bider egon nazala Gorbeia'n, eta beti pozik.

BIAR GORBEIRA !

Eta lengoan be, amar bat illabete ara igon barik gengoazala-ta, martitzen baten esan geuntson alkarri: «Biar Gorbeia'ra!»

Esan eta egin.

Biamamonean, garagarrillaren 4'an, zortzi ta erdiak jota, arako bidea artu genduan, berebil amultsuan, arratian ortan oitua kotxe-berotzaille genduala, ni ta L. A. Irugarren au munduan zear asko ibillia ta «Irakasle» tituluz ondo jantzia.

Ba-goaz Igorre'tik zear —erliak Yurre esaten dauala difioskue, naiz-

ta gaurko jakitunak «Igorre» ipiñi bidezabal ertzetako oltxoetan.

Umore ona daroagu.

Zelan ez, Gorbeia'ra goaz-eta?

Kotxe barruan, «Deia»-k dakazan izparrik urtenenak irakurri doguz, gain samarretik; orain ez daukagu astirik geiagorako, ezker-eskuma daukagu nai-



Mendi-zaleak mendietara

ko izpar; gu ez gagoz gaur gogoeta sakonetarako, ez dogu ortarako olgurarik, ez Ilebarik: gu joztaraztera goaz gaur, kasketak arindu ta biriki-auspoak aizatzaera.

Begoz urrun gizarteko griñak!

III

ALERTZE-ARTEAN

Arantzazu, Gaztelu ta abar atzera itxirik, Areatza'ko plazan eskutitz bat itxi dogu bidal-kutxan; eta, auts-laiñoaz ase, trokarantza artu dogu eskoitik.

Zulo onetan be, baserri apaiñak ezker-eskuma, solo, bedartza ta ortu esku-leun zaindutakoz beterik.

Ba-dira berton txalet bat edo bi be, leena ta oraiña alkar besarkatuaz.

Kantari zozo, birigarro, txantxan-gorri ta txepetxak.

Bidea piña ta alertze artetik.

Makur-uneak ez gitxi.

Upo barrenean gara.

Berebillari asnasa artzen itxi ta geure bernai be asazkalditxo emon naian, jatsi gara beera, ta eskoitik esiz biraturiko larrain erdian dagoan iturrian ase-ala ur ozkirri edan dogu.

Ordu ercli bat daroagu leku atsegingarri onetan, eta atzenez, told ain bikaiña bidaztai eskintzeko alegiñak egin dabezanai esker beroak erakutsiaz, aldatz-gora ostera be.

AMARRETAKOIA

Puzka doa kotxea, biclean, erdi ta egal, aurkitzen doguzan arrietatik iges egin naita.

Iru-lau makur-ume igarorik, gorantza beti, tuiaz ederturiko igarobide berde jagia zearkatu dogu, Sarkaldeko zine-mintzetan agertu oi diran lakoxe ikuspegi ederduna noski.

Irureun bat metro ortik ibilliaz, ona azkenik zelaiune zabala, alde bietan

mai ta jarleku apaiñakaz; baita Arrati-aldea osorik ikusten dan gaindegi dotore bat be or daukagu, Areatza'ko Udal-etxeak, inguru oneik apaintzera-koan, polito asmau ta jasotakoa.

Arratia ezezik, itxasoraiño mendi-gaillurrak eta piñudi zabalak ezin obeto ikuskatzen dira bertotik.

Bai ikustoki eder! Luzaro gagoz berton gure edertasunak, Jainkoak emonak, gogoratu, ikusi ta aintzalduz. Bealdea lainotan dado oindiño, eguzkiak alan be laster urtuko dauz gandu narrasok.

Eguraldi ederra, uda-udakoa, clankagu; goizaldera beintzat, ez otz ez bero, aukerakoa.

Mai inguruan jarri, geure bidezorroak edegi ta amarretakoa dagigu patxada onean: esku leun batek gertutako arrautz-opillak eta abar, guk bai gogoz iruntsi!

PAGO-MAKURRETIK ARRABA'RA

Eta goratxoago, or Pago Makurra, len pagoz ta agiñez betea, gaur piñuz ta txabolaz lirain.

Lekanda azpian dago, sarkaldetik. Berton dago otel bat be, inguru, ederrakin, Areatza'ko Udalari esker azken urteotan jasoa.

Toki atsegiña au be!

Esker-eskuma kotxeak izteko zelaiak, maiak, jarlekuak, iturri urtsua, ta ainbat txalet zuri zugatz artetan.

Sorkaldera begira, Gorbeia bekoz beko; Zeberio ta Arratia, atzean; Lekanda ta Orozko, eskuman; Mugarra, Axmutil, Saibigain, Anboto ezkerretik, begien asegarri.

Ernendik gorakoa oiñez osotuko.

Eguzkiak galdatau daukaz bazterrak.

Piñu-saillak baltz; Undurraga, Ipiñaburu, Legoaldi, Lambreabe, Agifialde, Aldamiñape erdi-laiñotan.

Emen Arraba'ko landa! Inor ez clago berton; asteguna da-ta, gu barrarik antza lanetik iges.

Zaldi-beor taldeak, ardi ta bildots aziak, basabeiak landako bedar guria mozten.

GORA TA GORA

Sopeña'ren aterpe gaintxoan gazte batzuk, etxe ta guzi.

Oneik be bear ba'cla gure antzera, lanetik piper.

Ao gaiztoak esan oi dabe gaur gazteak ez dabela lanik egin nai; baiña zaarrak lanaren lanaz nckaturik dagozan ezkerro, gazteak lanari lotu bearko.

Ez da alan?

Orrela egin izan da oraiña.rtc.

Beraz, gazteok, bota nagiak!, cia lanera! Ala, Marx'ck diñoanez, anto-

tatua al cia ementxe, lur-azalean, zerukoaren orde, gizakumeontzako «parabisua»?

Gu gero ta goago.

Ez goaz, igoterakoan, begi-itxi ta mu turi k.

Bai zera!

Beti be naiko txolin gaituzu ta gaur, ain zuzen be, Upo azpitik gora ikusi dogunak emon dausku autugai ez arrunta.

Zer, baiña?

Beean asi ta onaiño, bide ertzetan mugarri lez, olako upeltxo dotore batzuk ipiñi dauskuez taket bitik dingilizka, idazkun onegaz: «Saxak, basuras».

Ederto askol Bazkaria, askaria naiz aparria artu ostein geratzen diran ondakiñak bertara botateko dira.

Obeto ezin, mendi-egalak garbi ta txukun eukiteko

*

BERBAZ

Zek arritu gaituan? Onek: «Saxak» diño idazkunak; erderazko «basuras»-i esker, ba-dakigu zer esan nai dauan, bestelan ez genduan ulertzen.

Nire lagunetatik batak diñost: «Emen kortarik ez dago, ta...» Gure baserrietan, egi-egiaz, egunero txixa ta korotz-pekortze dariola jortatik etxe-ostera edo solora atera oi dabean ota-ira-gaitzuzko loi-zabor nasteari esaten dautsoe «satsa».

Korta barruan, naiz mandio ta aterpean eukita lortzen danari, ostera, «simaurra».

Bigarrenak diraust: «Bear ba'da, irolakoari esango dautsoe.

Eta nik diñot: Nai bata naiz beste izan, orrela ez da beintzat idazten.

Ettxera etorri ta daukadazan iztegi gustiak arakatu ditut, Larramendi, Aizkibel, Novia de Salzedo, Azkue, L. Mendizabal, Arbelaitz, P. Muxika, L. M. Muxika, Kintana ta abar, eta danetan dator «Satsa», ez «Saxa».

Au izan da gure ia ordubeteko alkar-izketa.

KURUTZERA

Onako ausarkeri lartxo dakusguz gaur baztarretan; edozein dogu maisu, tituludun jakiña,

Aitaturiko upeltxoen idazkuna, idatziz ezezik, esanguraz be txarto dago.

Baskari bat osoto ostein geratzen diran satiak, ondarrak, zaborrak artze-ko dala exan gerra dau; orduan, euskeraz badoguz beste itz batzuk ori adierazteko: «Ondakiñak», «Zikiñak» askoz obeto legoke.

Oraintsu —1979-7-22— Lemoatx' en nintzan ni, Lemoa'koen «Gudari-Eguna» zala-ta, mezea ta itzaldia egiten.

An bazter bateko taket batek iñoan: «Zikiñak» (Basuras). «Saxak» baiño «Zikiñak» egokiago, jakiña.

Aurrez aurre Igeriño'ko pagadi zabala.

Emen arnasa artu, atx-azpiko ur ozkirriz aoak busti ta atz-mokor urratu artetik, gorantza dagigu.

Ordu batak eta erdiak clira.

Ez da iñoan agiri, goiak zear bizkor dabiltzan belatxinga taldeak ezik.


Aldamin bizkarra ezker itxirik, irurok aldendu gara: arratiarrak artez igon nai dau Gurutzera, ta olantxe doa, izerdi patsetan, Lorentzo'k izpi goriz ederto kiskaltzen dauala.

Beste biok eskumarantz artu dogu, zearka joateko.

Polito igon be, bape nekatu barik, ez putz, ez izerdi.

Zaato txikia daroagu aldapan Iagungarri, ta noizik-bein, elbitz gain laban egitean-eta, giñarre-kimu ta bedar azi-barrian apatz ctzunik, oni, ots, zaatoari sapotzctik oratu, gogor-gogor estuturik, zelako ardo-txirristada damotsan ao-sapaiari, ortik atzerakoan eztarri-zintzurari be bustialdi ez-latza emonaz.

Eskergarri dozu beti onako la- guntza. Oba ez!



GAILLURREAN

Gain-gaiñean gara, Gurutz azpian, baiña zearkako biok, arratiarra bada gu ara orduko itzulia egiña cia.

Guk Gurutzeari mun-egin, onen azpian dagon Begoña'ko Amari otoitz-egin eta euskal kantu batzuk oiukatu doguz, biotz-dardaraz.

Goi-goi arrano bat dabel zelatari. Gaillur aren zaindari, bear bada? Eguzkiaren zizta guritan eta aize ozkirriaren txera samur artean, bai atsenden gozoa gain ikaragarri one tan!

Ona igon eta Jainkoa goratu ezin dauanaren buruak ez dakit ze ardatzez bira dagian.

Egarri gara, ta bakotxak laranja banaz aoa busti nai.

Eta ona zerk arritu nauan: «Saxak» iragarkiak eraginda edo, erbesteian luzaro ibillia dalako edo, nine lagunak, oso adeitsu, bereak eta nik laranja jatean albora itxitako laranja-azalak, here bide-zorroan sartu ditu, etxera ekarri ta emengo sastegira (?) botateko; ez dau Gorbei gaiñean loirik itxi nai.

Gorbei aundi, zu garbia zara! Zuk ez dozu gura, ez goi, ez be, kankarro erdoiturik, ez botella apurturik, ez paper-erdijanik.

BAZKARIA

Beruzkoan sendi bat aurkito dogu, aita bat seme-alabakin.

Gorantza doaz Gurutzeari agur egitera: berak gaztetan ikasi eban lez, ikasi dagiela seme-alabak be mendia maitatzen eta Jainkoa gostenen.

Lendik be berak sarri egiña dau gorantza bidea; ba-daki, beraz, alda-pea zer dan, bai mendian eta bai giza-bizitzan.

Axpeko iturri ondoan gagoz, Igeriño osoa, aitz, pago, etxe begipean dogula.

Zelaiaren ederra!

Ardiak dabiltz atxarteetan kerizpe billa.

Basabci ta zaldi-beorak be abaro dabe pago-mukur ondoetan.

Sai, bela ta txirrioak gure gain, egada bizkorrean.

Gu antxiñako ikeztoi baten ertzean bazkari-izkia egiten: olio-aran, aragi, gaztac, sagar ta olakoak; alboko iturriko ura jana leuntzeko, eta --ez aztul-- zaatoko mama gozoa.

Mendiko bazkaria, naiz jatalclia, gozoa izan oi da bene-benetan!

ETXERA

Eta ondo aseturik, edertasuncz cliñot, beerantza asi gara, berandu samar. Lekanda osetik clabil eguzkia.

Urkiola parean lez ortzian onantz dator illargia, astiro ta zurbil.

Arraba'ko landan Itxiña dakargu gogora, baiña ez dogu toki galdu ortarantza urratsik emon gura.

Gure olerkari G. Aresti ortxe ibilli jakun beñola naiko txarto «Ai, ai gure!» diño beintzat l6xiña deritxon olerkian,

Bederatzi ta erdietan Pago Makurra'n gara oraindik.

Aberc ta egaziak zugatz-ondo ta aterpe billa dabiltz gaba giro onean emoteko.

Gu be, goiak agurtuz begi ñirñirka, beerantza.

Ederrez aseak gatoz genre berebil urrumalarian.

Illuna lumaz jabetu nairik.

Zozo ta amilotxak zoko-ertzetan gordeka, egazkada motzean.

Marmar ezti beeko errekastoa.

Amarretan gu geure ixiltasun gurian.

Agur, Gorbei, mencli zangar!

AITA ONAINDIA

ERITXIAK

BAI ALA EZ?

BIZI-ALARGUNAK

Lengo ezkon-laguna bizi dala, beragandik aldentuta eta beste bategaz ezkondu barik bizi danari esaten dautsagu bizi-alargun.

—Lengo laguna bizi dala, beste bategaz ezkontzen ba'da, oker-ekondua esaten dautsagu.

Bizi-alargunak, arazo sakonakaitik egoera orretara eldu diranean Eleizan onartuak dira eta Mai Santuan be arteko izan leitekez.

—Oker-ekonduen egoerea, larriagoa da eleizan: Arazo korapillatua benetan! Ez dagoz eleizatik jaurtita, baiña oraingo ezkon-laguna itzi barik, ezin leitekez urreratu Mai Santura.

—Gaurko teologu batzuk onetan bigunagoak dira: Bigarren ezkontza-antzeko orretan izan diran seme-alaben ona kontuan artuaz, bizi-egoera larriak be izaten dira, onura aundiago bategaitik oben-bidean bizi leiteke...

—Gai oneik gaur egun azterpen aundien barruan diardue eta bakoitxaren kontzientziak Jaungoikoaren aurrean zer-ikusi aundia dau.

—Emen ebanjelioaren idealismua ta gizonen makalkeria alkarren aurka dagozela dirudi.

—Lenengo ezkontzea batzutan ez da izaten baliokoa eta gai ori be ondo aztertu bearrekoa da.

* *

ABEREEN ILLEZKORTASUNA

--Abereak ez dira Jaungoikoaren antz eta irudiko egiñak.

—Ilten diranean ezereztu egiten dirala diño, baiña eritxi ori ez da ziurra.

--Izaki guztiak dira Jainkoaren maitetasunaren agerpen. Abereak be bai, baiña emen daben bizitza laburraz amaitzen ete dabe zeregin ori? Gizonaren adimenaren bidez eta onen barruan ete da euren illezkortasuna? Jainkoak daki!

ONA TA TXARRA ZER DAN

—Ete dauko Eleizeak ona ta txarra zer dan esateko eskubiderik?

—Eleiz lege batek berez ona dan gauza bat, txar biurtu leike? Esaterako barikuetan aragia jatea!

--Aragi-izte ta barau areek, barruko Jainkoagana biurtzea adierazten eben, eta ori bai ba-dala bearrezko gauzea: Munduko zalekeri larregiak itzi eta neurritz bizitea! Gaur gaiñera aragi-izte oneri beste bide bat emon leio: Or aurreratzen dan diruaz, munduko gosedunai jaten emoteko laguntzea.

ZAZPI GRIÑA EDO OBEN NAGUSIAK

—Nun dira aspaldion zazpi pekatu-buru eta oben nagusi areek?

—Lenengo besteak, azkenengo aragikeria, pekatu lez, galduak dirala dirudi!

Ez da orrelan: Gaur be kristiñauen artean ez da ontzat artzen diru-zalekeria.

Ez dogu ontzat artzen gorrotoan bizitea, ankerra izatea, iltea...

Arrokeria beti lez, Barri Onaren indarrez, ez da bedekatzeten...

Bekaitza, enbidia, ez da zintzoen onoinena...

Lizunkeria ez da santutasuna, pekatu bakarra izan ez arren.

Eta nagikeria? Non onartzen dau gizarteak lanik egin gura ez dauana?

Jan edankeria, ezin onartu geienak gosez bizi dirala.

* *

AUR-GALTZEA

—Italia'n oraintsu, lenago beste laterri batzutan, laster bear ba'da gure artean, aurgaltzea, abortoa, legez onartua izango da.

—Lotsagarria! Jainkoa gizadiatz aitzu ete da? Ala gizadia Jainkoagaz?

Lege orreik aur-jaiogabeen eskubideen aurka dagoz. Ez daukela eskubiderik? Nork ebatzi ete dau ori? Bere legeak eta bere bideak dakarz jaiobako arek.

Biziaren alde egiten diran ainbeste ekiñaldi txalogarriak dira, baiña ona emen, millaka jazoeretan, eriotzearen lan ikaragarria!

*

UMEEN BATEOA

—Jaunak (Irakatsi ta Bateatu» agindu ba'eban, zergaitik atzekoz aurrera egiten dogu, lenengo bateatu eta gero irakatsi?

—Lenengo Eleizan, asikeran, ez ziran umeak bateatzen.

—Baiña Biblical bertan be iñoz agertzen da etxeko guztiak bateoa artu ebela.

—Bigarren gizaldira ezker, umeak eleizan bateatzen ziran (S. Justino'k diño).

Mundu onetako bizia be Jainkoak gure baimen barik emon euskun, zergaitik ez fedearen bizia?

Sendian, bateoa oiñarri dala, gorputzez azten dan antzera azten da umea.

Len bateatu gabeko umeak linbora joiatzela uste izaten zan, eretxi orrek ez dauka teoloji-oiñarri aundirik. Jaunaren errukiak, Kristo'ren berbizkundea bitarte, salbauko ditu.

*

ARIMEN SORKUNDEA

Bakoitxaren arimea, mundura datorrenean, banaka ta berariz egiña izaten da?

—Gizona, be-maillako abereak bide dirala izadira sartu ba'zan, adimendun izatera eldu zanean an egoan Jainkoa egille lez.

Gizona gorputz eta arimaz osotua dala, Grezia ta Erromatarren «filosofia» ei da. Gizona, gizon lez eta Kristo berbiztuaren doaiez illezkorra da.

Gizona, gurasoen gizakiak alkatu eta bere gizabidea artzen dauenetik aurrera, gizon da.

G. T.

OLETAKO EUSKAL ADITZA

EUSKALKIEN BILLA

Puxana'tar Pedro, euskal gramatikalarari ezagunak liburu barri bat argitaratu dausku.

Gogoan daukagu Idazle ta adiskide onek Bergara'ko Batzar ospetsu aretan (Batuaren amargarren urtean Euskaltzaindiak egiña esan gura dogu), euskaltzainai egin eutsen itauna: Euskalkiai buruz azterpenak egitea zillegi etc dan.

Baietz esan eben euskaltzainak, zori onez. Errukarriak gu ezetz esan ba'lebel!

Eta baietz orren arauz, Puxana'k bere billaketa lanean jarraitu dau eta ona emen gaur lanaren frutu eder bat: *Oletako Euskal Aditza*.

ERDERAZ

Liburu au erderaz idatzia da.

Zer esango dot? Txarto dagoala? Ez. Baiña neure ustez euskera ta erdera bietara egitea obeto izango zan. Edozelan be, erderaz egitea egoki dala uste dot, billaketa-arloetan lanean diarduen izkuntzalariak, askok beintzak, euskerea ondo ez dabe jakiten eta. Baiña euskeraz be bearrezkoa zan, euskal-iztegia aberastuteko beintzat.

ZEAZTASUNAK

Liburua Araba'ko Lege-Zardun Aldundiak eta bertako jakintza-taldeak argitaratu dautso Puxana'ri. Orrelan dirualdeko buruaustekak alboratu ditu beintzat.

Alboan Euskal Filoloji-sailleko Unibertsitatea be aita-tzen da.

Oleta'ko eleizearen irudia dakar liburuak azalaren erdi-dian.

Eta gainean bertan, gem barruan barriro, gaien labur-pena: Ika-jokoak, Leintz ibarretik, Angiozar-ibarretik, Zea-nuri'tik eta Mungia'tik artuak.

Sarreran, Endrike Knorr'ek 1977'ko azaroan idatzitako «HITZNO» (!) bi: Puxana'ren bizitzako jakingarri batzuk, argitaratzeko laguntza, eta Alfonso Irigoieni esker oneko berbak.

Araba'ko Aldundiak berak, bere irarkolan irarria da. Aurten ain zuzen.

* *

GAIAK

Sarrera labur bat egiten dautso Puxana'k here billaketa-liburu oneri. Lenengo Oleta'ko euskerea bere lekuan jar-tzen dau, bizkaieraren barruan, Otxandio'kotik eta Aramaio'kotik ondo bereiztuta.

Gero liburuaren iru zatiak aurkezten ditu: Aditz laguntzaille igarokor eta igarogaitzarena, lenengoa; orixe berori ika-jokoan, bigarrena; aditz soillaren jokabide igarokorra ta igarokaitza ika ta zuka, irugarrenean. Amaitzeko Oleta'ko euskeraz esaldi batzuk.

Laguntzalleai, izenez gogoratuta, esker ona agertzen dautse.

Urrengo, lur-irudi bi dakar; Araba'rena bata Aramaio non dagon adierazteko eta Aramaio'rena bestea, Oleta non dagon agertzeko.


* *

ZER ESAN?

Lan au guztiz txalogarria da. Amar urte dira izkelki edo dialekto-lana zentzunez eta zeatz egin bear dala esan eta ezan diardudala eta olako lantxu bat agertzen danean benetan poztuten naz.

Euskera batua egiteko bearrezkoa zan lenengo dialektoloji edo izkelki-lana: Abotsak, iztegia, itz-osotzea ta joskerea kontuan dala egin bearreko lana, lan aundia ta sakona, lur-irudietan, mapetan, ezarri bearreko lana, magnetofon-mintzak ugari erabilliz egin-bearrekoa; izkuntzalariak *Atlas Lingüístico* esaten dautsoena daukat gogoan.

Lan ori egiteko bideetan oso atzera gagoz: Ez dago dirurik, ez dago langille gertaturik, ez dago egiteko gogorik... Eta ori barik inora ez goaz izkuntzaren bideetan eta ba-uaeren bideetan.



Puxana'k, eztabaidak alde batera itzita, egin egiten dau. Eta ori da txalogarria benetan. Are-garau bat baiño ez ba'da be, egin, ekarri.

Baiña utsak lan guztiak ditue. Sarritan utsak barik, ereti ezbardifien ondorenak izaten dira.

9'garren orrialdean, *na, za, da...* «morfemas de paciente» diño. Ez ete da *n, z, d...* «morfema de paciente» eta *a* ori beste zerbait?

10'garren orrialdean: «Hay casos en que la tercera persona *da* en el habla popular es *e*; *Aitte clout de?*... *Ez, ezte etorri*. *Da* aldatze ori aurreko i'k egiña dala uste dot, orregaitik *Ezta etorri*... izango dala uste dot, *a* ta *e* alkartzen ez badira beintzat. Ori ikusteko, begitu *ez da joan*, ez da izango *ez de joan*.

13'garren orrialdean: , *einitezen*, nire ustez eta zalantza barik, *zeiñtzezen n'gaz* izan bear dau, ostantxean i'k ezin leike agogaiferatu n bitartean dala t ori, i'ren indarrez n biurtuta gero bai.

Eta i'ren ostean *n* agertzen danean beti esaten da n eta ori sarritan kontuan artu bearrekoa zan liburuan: *zieñkez, zieiñkeze, geirikezen*... Ori bear dan lez artzeko «palatografoak» bearko litzakez.

19'garren orrialdean —*dx*— ta *z* ordezko x'ren azterpena ez dago ondo eginda, aldakuntza orrek ez dauko beste iturririk i'ren abots-indarra baiño. Eta au liburu guztirako da baliko.

* *

ZORIONAK ETA ESKERRAK

Azterpen zeatza egiteko, idaz-lan au ez cia toki egokia eta gainera zabarkerietara sartzea be ez da gauza ona.

Billaketa-lan ederra da Puxana'k egin dauana, zorionak eta eskerrak emon bearrean gagoz berari eta euskerea sakon-sakonetik ezagutu gura daben ikasle eroapentsuak badauke zer irakurri.

OLAZAR'tar Martin'ek

KONDAIREA

LEGE ZA e AK

BEREZITASUNA

Bizkai'ko foruak beste lurralde batzutakoen antzekoak dirala esan dabe batzuk.

Baiña, egia esan, gure Lege Zarren berezitasuna, euren sorburuan dago.

Lege Zarrak ez dira goitik arturiko eskubidea, ez legegille batek emona, erriak ber-berak egiña baiño.

Bizkaitarren erri-eskubideak, erriak eukazan ekandu ta oituretatik berez sortuak dira.

IDAZPENA

Ekandu orreik agiri idatzietan agertu ziran gero.

1343'garren urtean Gernika'n egindako Batzarrean, lenengo agiri idatzi oneik D. Juan Nuñez de Lara'k eta onen emazte zan D.^a Maria'k egin ebezan.

Lenengo forua esaten jaken agiri orrei, baiña ez ondo, bere 37 azalburuak zigor-legeak ziran eta larra ta mendiai dagokiezanak baiño ez. Ez zan ba, Lege Zar guztien kopurua.

GAIZTAKERIAREN AURKA

Berrogei ta amaika urte geroago, 1394'an, Bizkai'tarrak Ermandadearen forua esaten jakona egin eben.

Lapur eta gaizkileentzat egiña zala eta foruak ez zirala, zigor-legeak baiño, diño Areitio'k.

Foruak eurak, egiz aske ziranak, ez euken zerikusirik araudi oneikin. Esan dogunez, gaiztakeria aldentuteko ta bake-baretasuna Bizkai'ko jau sartzeko ziran.

1394'an, baita, Enkarterriko forua Abellana'da'ko batzarrean ontzat artua izan zan.

Jado ta Ezkartza'ren eritxiz, foru onek ez dauka kondairazko agerpen baten balioa baiño, eta, orrez gaiñera, Bizkai'ko Foru Barria argitaratu zanetik, 1526, ezereztu egin zan.

FORU ZARRA (Lenengo Forua)

1452'ko bagillaren 2'an Foru Zarra esaten jakona, Batzar Nagusian onartu eben. Oneri nainkoa zioz esan leio Bizkai'ko Lenengo Forua, erriko ekandu ta oiturak, guztiak izan ez arren, bertan datoz-eta.

Tamalez, ez daukagu euron aldaketa edo biridatzirik.


Baiña Foru Zar onek ez eukan eregitasun aundirik: Alde batetik, beteten ez ziran alperriko legeak sartzen ziran eta bestetik betetan ziran legeak, naita idatzita egon, ez ziran sartzen.

FORU BARRIA

Orregaitik, 1506'en Foru Zarra barriztu gura izan eben, baiña asmo au ez zan bete 1525'era arte.

Alan be, Foru Barriaz berba egin baiño len, aitatu dagigun «Chinchilla»ren araudia.

Onetzaz zerbait jakiteko, lenengo auxe esan bear dogu: Ez dala Batzar Nagusietan egiña edo emona, Bilbo uriko udalean baiño.



Foru Barriaz Bizkai'ko legegintzaren gorengo unera eltzen gara.

1526 urteko jorraillaren 5'ean izan zan.

ONARTZEA

Batzarrean bazkideak onelan adierazo eben Foru Barri onen onartzea:

«Foru Zarra bakerik ez zuzentasunik ez egoan aldietan idatzia zala eta gure jaunerrian orain beste jakitun eta auzi-ikasi batzuk dagozela ikusirik, eta Foru orretan orain bearrezko ez diran gauzak idatzi zirala ta gaur erabilten ez diranak dirala jakiñik, lurralde onen bake ta zuzentasunerako bear-bearrekoak diranak ez dagozela oar

AMALAU GIZON

Zio edo errazoi orregaitik, amalau gizon izendatu ebezan, ordezkariak buru zirala, ekanduak, oiturak, askatasun-bideak, eskubideak eta zerga idatzi ta idatzia ikustatu ta aztertu egiezan.

Batzarrak Bilbo-uritik at izaten ziran, Martin Saez de la Naja'ren etxean.

Egunean bitan batzen ziran, goizetan seiretatik amarretara, arratsaldeetan ordu batetatik bos-tetara, guztiz egunean zortzi ordu.

LEGE ZAR ONEN BIZIA

Foru Barri au España'ko Lege-Araudiak ontzat artu eban 1889 urtean.

Beronen iraunaldia, 1959'ra eta, urte onetako dagonillaren 21'era artekoa izan zan.

Lareun eta ogei ta amairu urteko bizia izan eban.

Ogei ta amasei atzalburu eukazan.

Amar biclar irarria izan da, azkenengoz Areito'ren itz-aurreaz Aldundiak babestu ta zainduta.

LETONA'k



Orain 53 bat urte Londres'en John Logie Baird'ek asmatutako tresna barria dogu. Asmakizun ederra benetan! Baiña guk, euskaldunok, ikusten dogun teleikuskiña ona ala txarra da? Ona emen azterketa labur bat:

Teleikuskin batek ikusten dan erriko kondaira, folklorea, arazoak, jakintza, izkuntza azaldu edo goraldu egin bear dauz, gauzak diran lez esan.

Euskalerrian daukagun telebisiñoa España'koa da. España'ko kondaira, folklorea, arazoak, jakintza, ta abar eta Euskalerrikoak bardiñak dira? EZ. Beraz, lenengo gai onetan utsune bat dago.

Teleikusin batek ikusten dan erriko izkuntza edo izkuntzen alde zerbait egin bear dau. TVE'k zer egiten dau galego, katalan eta euskeraren alde?

Katalanen alde bearbada zertxobait egingo dau baña euskeraren alde beintzat ezebez. Emengo izen bat irakurri bear dabenean geienetan txarto egiten dabe, ondiño gogoan dogu bein abertzale esan bearrean aberlatze esan ebena.

Noizko euskerazko telesaioak?

Bigarren «puntu» onetan be utsune aundia.

Erri bateri barri bat emotean, izan dan lez esan bear jako ta ez batzuei komeni jaken bezela.

Gai au garrantzi aundikoa da ta emen be gauzak ez doaz ondo.

Beste batzutan, esatebaterako, Euskalerrian jazoten diran gertakizun aundi batzuk aitatu ere ez dira egiten. Zergaitik? Erantzuna erreza da:

Batzuei komeni ez jakelako.

Gogoan dogu «Euskalerria» izeneko telesaioa emoten ebenekoa. Aste batean futbola zala, beste batean tenisa ta urrengoan beste txotxolokeri bat, zenbat bider ikusi barik geratu giñan!

Baña orain len baño txartoago, eztabe emoten eta, emen be atzerantza goaz.

Zergaitik bigarren katea ez dabe lagatzen probintzi maillan erabiltzeko?

Euskaldunak euskal-telebisiño bat gura dogu, gure aberriaren kondaira, kultura, oitura, izkuntza ta folklorea zabaltzeko, gure arazo ta kezka guztien barri emoteko. Euskalerrian eta euskaldunentzat euskal teleikuskiña.

ZANGRONIZ'ek

ARAZOAK

ETORKIZUNA

NORTZUK GAZTE?

Konclairako jazoera azkarrak, gure idazleak azterpenak egitera beartzeko indarra dauke. Baiña irudimena daukenak baiño, ez dabe aztertzen, bear dan lez, etorkizuna. Gaztea ez da urte gitxi daukazena, geroari begira dagoana baiño. Ba-dagoz gizonak, adiñez elduak izan arren, gatzetasunez beterik dagozanak, aurrerantz begiratzen dabenak, eta ori irudimenez beterik dagozalako.*

ARRISKUAK

Etorkizunari begiratzea ez da azti edo igarle izatea, naizta sarritan ainbestetan geroari begiratu, igarle biurtu. Dana dala, oraindiño geroaren esku dagoana begiratzeak, ba-daukoz bere arriskuak eta orretan dabillena ago-miñean erabilia eta jazartua izaten cia. Ori da arriskurik aundiena. Igarleak be, orduan jazarten ebezan, eta geiago*, igarle izan barik, orretara sartzen ziranak!*

EPE LABURRA

Okerkuntzarik ez egiteko, begiratu bururatzten dogun geroa, etorkizuna. Orain arte jakintza'ren ama lez ikusten eban gizonak, experientzia edo oar-ikasía. Gaurko munduan oar-ikasi barriak arin etorten dira eta aurrean dagoanari emoten jako garrantzia. Etorkizuna ez da ikuspegi bat baiño, eta ikuspegi ori be beti barrizatua. Bi milla garren urtean jazoko dana aurrez ikustea, arriskutsua da, baiña lapraztada batzuk egitea, utsen bat egitea, onartu lei beste ondoren onen ondoan. Bi millagarren urtera arteko aldia, norabidez eta erratzeko bide-kurutzez beterik dago. Baiña ur*, urrengo etxe-bazterreko biran ba'lego lez.*

ARDURAK BULTZATUTA

Barrero diñot: Etorkizunari begiratzea ez da azti edo igarle izatea, ez da sorgiñen lana. Gizon ikas-zalearen elburua da. Gizadiaren ezin-egonak, ibilketak, larritasunak, kexaldiak eta olakoak bultzatzen gaitue joko orretara. Filosofiaren, teolojiaren ekonomiaren, teknikearen aurrerapideak eskatzen dasku zorotasun ori. Gaiñera, ekoloji-egoera ona nai dauan mundu onetan bizi gara. Etorkizunari begiratzen zaleak garan guztiok ikasi bear dogun jakintza bat da ekolojia.*

EKOLOJI-ARAZOA

Ekolojia, jakintza baiño eginbidea da beiñago. Ernest Eckel'ek, orain mende bat dala, asmau eban *ekolojia* itza. Gizonak gizadian eta izadian dituan zer-ikusi guztiak aztertzen ditu ekolojiak. Ekolojia ta etorkizunaren ikastetxeak Inglaterra'n, Alemania'n, Kanada'n eta Ipar-Ameriketara ugari dagoz. Emen, Rand Corporation edozein jakitunek ezagutzen dau eta New York'en Hudson'go ikastetxea guztiz ezaguna da.*

GAZTETASUNAREN EZAUGARRI

Etorkizunaren arduradun izatea gatzetasunaren ezaugarri ba'da, lengoetan bakarrik egon eta arduratzea agurekeriaren ezaugarria dala diño Azorin idazleak: Zartasuna, agurekeria, irudimena galtzea da, esaten eban. Gure Unamuno'rentzat, olerkia zan «oraingoaren betikotasuna». Eta Teilhard de Chardin'ek beste au idatzi eban: «Zenbat eta urrago gizona gizon izatera eltzen dan, ainbestean apurtu eziñeko gauza barrietarantz joko dau». Lenengo bear dana ez da dana apurtzea, aurrerantza ta gorantza bidea egitea baiño.*

KRISTIÑAUTASUNA ETORKIZUNERA

Kristiñautasuna Euzkadi'ren erlejiñoa da, ezkerraldekoak onartu ez arren. Kristiñautasuna etorkizunerantz iraulita dago. Ez ete da ba kristiñaua betikotasunerantz doan gizona? Kristiñauak geroaren ikuspide guztian Jon deunaren gurari aundia darabil bere biotz-taupadetan: ERDU JESUS JAUNA. Baiña ez da naikoa Jesus'eri itxarotea, beraren billa urten bear dogu.

EGILUZE'k

EUSKERAZALEAK

I RAKASLE - I KASTEGIA

Gaur egun ia eskola ta ikastetxe guztietan euskerea sartu da, au berez gauza pozgarria da.

* * *

Baiña zenbat eskola ta ikastetxe doguz Euskalerrian? Asko ezta? Nundik atara nai-ko irakasle euskeraz irakatsiteko? Ona emen gaur egungo arazo aundi bat.

* * *

Irakasleak zelan gertau, nun aurkitu? Topatzen diranak gauza ete dira euskeraz irakatsiteko ala ez? Sarritan entzuten dogu euskerea gatxa ta gogaigarria dala ikasteko, baiña noren errua dan ba ete dakigu? Ezta izango irakaslearena?

* * *

Arazo aundi au zuzendu guraz urrengo ikastaroan Euskerazaleak Alkartean talde berezi bat izango da, euskerazko klaseak zelan emon bear diran ikasteko. Talde onetan 15 bat ikasle artuko doguz, danak euskeraz berba egin bear dabe; beraz, edo euskaldun barriak edo betiko euskaldunak izan bear dira. Ikasle onek 1980-81 ikastaroan euskeraz-ko klaseak emongo dabez.

* * *


Ikastaroan «metodologia» ta euskal jakintza edo kultura ikasiko da ta dandana euskeraz izango da, gramatika aldetik be gauza asko ikasiko dira.

* * *

Irakurle: Ikastaro onetan parte artu gura ba'dozu emon zure izena gure Alkartean len bait len.

Bien bitartean gogoan izan: Bizkai'ko euskerak bear zaitula.

ZANGRONIZ



KILI-KILI

UMEAK ABEDETZEAN EUSKALDUNAK EGITEN DABEN.

L A N EDER-EDERRA

EUSKERAZ UMEENTZAT 1.º ALDIZKARIA

* * *

LAGUNTZAILLEAK BEAR DITUGU:

- Marralariak
 - Margolariak
 - Eroaleak
 - Zuzentzaileak
 - Esku-langilleak
- ETA ABAR...

LAGUNDU EGIGUZU, EZELAKO ASTIRIK BA DAUKAZU

Deltu: Kili-kili'ra, 4-16-60-49 edo
Euskerazaleak'era: 4-23-53-22

BEAR-BEAR ZAITUGU. ZURE LAGUNTZA POZIK ARTUKO DOGU.


IZKI-NASTEAREN ERANTZUNA

N	E	U	K	S	Ø	J	I	L	L	M	A	T	S	Z
A	B	O	I	L	G	I	M	U	N	A	G	O	D	A
G	I	J	K	O	E	R	R	Ø	S	T	U	Y	O	J
O	X	O	L	L	R	R	A	Y	B	U	L	U	S	A
T	O	N	K	L	A	E	N	A	I	R	R	L	T	Z
Z	I	L	L	Ø	J	X	O	R	G	O	R	Ñ	X	E
I	M	U	K	E	X	O	J	T	A	L	A	B	U	L
D	L	I	G	E	R	N	A	Z	B	A	B	E	D	L
P	A	M	O	T	R	I	L	U	P	J	I	G	Y	U
U	K	A	T	X	U	L	L	Ñ	I	M	R	O	T	Ñ
Ñ	E	U	T	E	R	R	E	G	K	U	R	T	Z	E

Izki-naste onetan, Gipuzkoako bost ibairen izenak dagoz. Aurkitzen ezpadozuz ikus akzenengo orrialdean.

ZAR

Colón de Larretégui, 14 - 2.º dcha. BILBAO-1



70 urte Bizkaiari laguntzen



CAJA DE AHORROS 
MUNICIPAL DE BILBAO
ONDO ERANTZUTEN DAU